



«Errepikatuko nuke, baina ezin da»

Mari Sol Bastida alargunaren testigantzak distira eman die 'Laboa gertutik' jardunaldiei

«Istripu haren kutxa beltza zabaltzeke dugu gaurdaino», adierazi du Juan Gorostidi idazleak Ez Dok Amairuren 1972ko haustura dela-eta

■ FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. 'Laboa gertutik' jardunaldietan, alargunak, Mari Sol Bastidak, izan zuen protagonismo handiena atzokoan. Berari egindako elkarrizketa batean esandakoak entzun ziren, oso modu bitxian entzun ere: bere garaian -duela gutxi- elkarrizke-

ta egindako kazetaria, Euskadi Irratik Arantxa Iturbe, KM kulturuneke oholtzan eseri zen eta halako saski-nahaski bat eskaini: batetik, Mari Solen adierazpenak; bestetik, bere (Arantxaren) gogoeta batzuk; eta horrez gain, bestelako soinu eta doinu batzuk. Mikel Laboa Katedrak eskatua zien jardunaldiotako parte-hartzaileei saio experimental samarrak egiteko, eta Arantxa Iturbek ondo bete zuen gomendioa.

Mari Sol Bastida ez da plaza-andrea eta ez du gustuko jendaurrean hitz egitea. Atzokoan, entzuleen artean eseri zen eta sekula ez zen oholtzara hurbildu. Ez zaio gusta-

tzen jendaurrean hitz egitea, baina Iturberi gauza aso kontatu zizkion. Gero, kazetariak, Mari Solen pasarte honekin eman zion bukaera saioari: «Beti esaten dut: posible izango balitz berriro errepikatuko nuke [Mikelekiko] prozesu hori, baina ez da posible. Orain dela urtebete, Mikele lagun batekin egin nuen topo. Mediku psikiatra da.

-Zer moduz zaude? -galdetu zidan. -Nahiko ondo.

-Baina gauero gogoratuko zara Mikeletaz, ala?

-Bai, eta batzuetan, txorien kantuetatik aditzean, iruditzen zait bera dela.

-Aizu: berarekin konektatzen baduzu, agurtu ezazu nire partetik. Baina serio esaten dizut! Sinfalta! -Bai, agintzen dizut -esan nion».

Alargunak adierazi zuenez, «konplizidate izugarria, eta komunikazio ona» eduki zuten beti Mikel eta biok. Familiaren diru-kontuak ez omen ziren errazak izan: «Formula bat bilatu behar genuen eta aurkitu genuen: Mikelek ez zuen psikiatria utzi nahi eta neuropsikiatria hasi zen, goizez, San Migel klinikan. Eta, geroago, ni EUTGn hasi nintzen, Ekonomia irakasten. Biok oso gutxi irabazten genuen, eta Mikelek kantuetatik batere ez. Nahiko idealistak ginen, eta piska bat inuxenteak ere bai. Pentsatzen genuen kulturaren bidez posible zela libertatea eta justizia irabaztea. Nahiko inuxenteak ginen».

Juan Gorostidi izan zen atzoko beste hizlarietako bat. 'Lau kantari' liburuaren egilea dugu. Gauza deigarri asko esan zituen. Adibidez: «Pentsatzen jarrita, Laboa ez genuen ikono bihurtu hil zenean, edo bere bizitzaren azken boladan soilik. Nire ustez, ikono bihurtze hori askoz lehenago hasi zen. Eta, hala, 60ko hamarkadaren bukaeran eta, bereziki, 70ekoan ikonoklastiaren erdutat har zitekeen Laboa; baina 80ko hamarkadan bihurtu zen edo bihurtu genuen, dagoeneko, ikono.

Ez zen kasu bakarra izan, baina bai agian nabarmenena».

Gorostidiren iritziz, 80ko hamarkadaren hasieran, eten bat gertatu zen, Laboaren osasun arazoak tarteko. «Eta esango nuke Laboaren ekarpena burutua zela ordurako -jarritu zuen-. Eskainia zigula eskaini beharrekoa, goia joa zuela 1980rako. Eta ordutik aurrerako guztia beste zerbait izan zela; bere ingurukoek eta baita tratatu ez genuenen irrika eta bultzadek eragindakoa ziur aski; halako 'revival' kutsu bat izan zuena».

Ez Dok Amairu mugimenduaren puskaketa, 1972an gertatua, ere aipatu zuen Gorostidik: «1972.ean hautsi eta desagertu zen. Mugimendu berri eta berritzailea izan zen, gai izan zena urte haietan sortu zen eszenatokia ia erabat betetzeko. Eta haren inplosioa -barrutik eragindako haustura izan baitzen- taldearen unerik arrakastatsuenan gertatu zen, hain zuzen ere 'Baga, biga, higa' sentikariarekin taldea arrakastaren goia jotzen ari zen unean. 'Baga, biga, higa'-ren grabazioa burututa zegoen, eta zentsuraren oztopo irudiz gaindiezina gaindituta, barne zentsura moduko bat inposatu nahiak hautsi omen zuen taldea. Egun, 40 urte ondoren, argitaratu gabeko lana dugu hura, inork ezin duelako garbi esplikatu, nonbait,

Atzo Montoia, gaur Beñat Axiari, eta kalean gainera

Jardunaldien lehenbiziko egunean, asteartean, Ruper Ordorika eta Anari jardun ziren kantuan. Atzo Xabier Montoia kantatu zuen. Laboarekin harremana edukitakoa da bera ere, eta gainera bera izan zen haren omenegindako 'Txerokee' diskoaren bultzatzaile nagusia. «Nik

sekula ez dut hitzaldirik egin nire bizitzan, eta orain ere ez dut egingo -esan zuen Montoia atzokoan-. Mikelén modukoa naiz, hitz egitekotan nahiago ditut tabernak. Gaur nire kanta batzuk kantatuko ditut, ez baitakit Mikelekin gitarrarekin kantatzen. Taldean, bai, badakizkit». Eta, halaxe, Laboarekin nolabaiteko zerikusia daukaten abesti batzuk eskaini zituen.

Bihar da jardunaldien azken eguna eta arratsaldeko 4retan Denis Laborde jardungo da. Et-

nologoa da eta Parisko CNRSko ikerlaria. «L'homme qui s'adressait à chacun de nous. 'Txoria txori' et l'invention sans cesse renouvelée du chant basque» du izenburu hitzaldiak. Arratsaldeko 5etan atsedena egongo da eta handik ordu erdira hiru artista igoko dira KMko oholtzara: Koldobika Jauregi eskultorea eta Josetxo Silguero eta Iñaki Salvador musikariak. Eta 19:00etan, KM aurrean, Beñat Axiari kantaria ariko da, Thierry Malandain dantzari garaikidearekin batera.

Bastida: «Pentsatzen genuen kulturaren bidez posible zela libertatea eta justizia irabaztea. Nahiko inuxenteak ginen»

Gorostidi: «Laboak 1980rako jo zuen goia. Esango nuke ordutik aurrerakoak 'revival' kutsu bat izan duela»

Elkarrizketan bera bakarrik. Arantxa Iturbe, Euskadi Irratiko kazetaria, atzo KMn. :: LOBO ALTUNA

zer arrazoi diren horren isilune luzearen atzean. Istripu haren kutxa beltza zabaltzeko dugu gaurdaino».

Hautura haren atzean politikari batzuen eskua ikusten du: «Inork ez du erabat garbi hitz egin, baina hausturaren atzean esku hartze sektario bat izan zela ondorioztatu genezake. Artistek erretiratu behar izan zuten ordura arte betetzen zuten esparrutik, 'politikari' jelsokorrek beretzat bakarrik nahi zuten esparru publikotik. Guztiz kontrakoa da artearen bidea. Artea izateko, arteak bere terminoetan definitu behar du bere burua; ezin du bilakatu letorkeen zerbaiten atariko, mendeko. Horregatik agian Laboaren kasuan -eta beste batzuen kasuan- taldearen morrontzatik libratu orduko suertatu zen haren heldutasun artistikoa, taldeak saihestezin baita nolabaiteko morrontza politikoa».

Beste hitzaldi bat Lourdes Otaegi EHUko literatura irakaslearena izan zen. Laboak bere kantueta-ko aukeratutako literatur testuei buruz jardun zuen, eta batez ere bi ale aztertu: 'Liluraren kontra' (Bertol Brecht) eta Antzinako bihotz' (Bernardo Atxaga).

'Liluraren kontra'-z hau esan zuen: «Bizitzaren filosofia bitalista bat dugu hor goiburua, ez dugula geure burua engainatzen utzi behar geroko sarietan fidaturik, carpe diem!, baina aldi berean kexuaren aurka-ko mezua ere bada».

Eta 'Antzinako bihotz'-i buruz, berriz: «Bernardo Atxagak Friedrich Holderlin poeta alemaniarren poema baten edukia komentatuz osatu zuen testu hau. Gizakien galderen eta gauen poema da, edozein bihotzetan kokatzen diren saminen eta kezken adierazgarri. Tartean entzuten diren alemanezko hitzek areagotzen dute bihotzaren konpreniezintasuna. Naturarekin bat egitean gizakiak daukan duen transzendetzia egarria ere ageri da».

Zenbaki batzuk ere eman zituen Otaegik: Laboak Artzeren 10 testu musikatu zituen, Sarrionandiaren 8, Leteren 5, Atxagaren 4...

Ikuskizun berria

Bestalde, dantza garaikidea egiten duen Manuela Carretta italiarraren lan berria aurkeztu zen atzo. Lehen ere egin ditu kolabaiteko morrontza politikoa».

reografiak Laboaren abestiak oinarritzat hartuta -horietan lehena 'Haika mutil'- eta oraingoan oso lekeitio espermental batekin auzartu da: 'Gernika'. Lemoizko zentral nuklearrean irudi batzuk grabatu dira -lan hau EHUren Laboak katedrak sustatu du- eta Irati Gorostidiren bideo sorkuntzaz gauzatu da.

Ikus bideoa mugikorrekin QR kode hau eskaneatuz



Combinación de música y palabra para el Bicentenario

El programa del segundo concierto de abono de la OSE conmemora los doscientos años de la quema de Donostia e incluye textos escritos por Harkaitz Cano

:: TERESA FLAÑO

SAN SEBASTIÁN. El segundo programa de abono de la Orquesta Sinfónica de Euskadi, titulado 'Despierta en el bosque oscuro, despierta', tiene un carácter de homenaje y recuerdo enmarcado en el Bicentenario de la destrucción y posterior reconstrucción de San Sebastián. Por esta razón solo se ofrecerá, hoy y mañana, en la capital guipuzcoana.

Imanol Alberdi reflexionó ayer en la sede de la OSE sobre las características de este concierto. «Atendiendo al lema de esta temporada, 'Lenguaje universal' hemos añadido la presencia, de forma muy importante, de la palabra». Para ello la dirección de la Orquesta ha encargado al escritor donostiarra Harkaitz Cano la elaboración de un texto que el mismo autor leerá al principio de cada una de las dos partes que componen el programa.

«Es una creación nueva escrita específicamente para esta ocasión. La voluntad del concierto es la de celebrar ese Bicentenario y en el apartado musical hemos querido representar los tres aspectos que han centrado la conmemoración a lo largo de todo el año. Cada composición simboliza una parte de ese momento histórico que estamos recordando», apuntó Alberdi.

La primera de las obras que se interpretará será 'Totenfeier' (Ritos fúnebres) de Gustav Mahler. Significa la guerra, la destrucción de la ciudad. A continuación se podrá escuchar 'Pavane pour une infante défunte', compuesta por Maurice Ravel, que representa la memoria, el recuerdo de los muertos durante la tragedia. Por último, la Orquesta de Euskadi tocará 'L'Ascension', de Olivier Messiaen que quiere simbolizar la reconstrucción, la vida nueva de la población y de la ciudad.

Jun Märkl

En esta ocasión, al frente de la OSE estará el maestro alemán Jun Märkl que ayer celebró el último ensayo con los instrumentistas. El director manifestó su satisfacción «por participar en un programa tan relacionado con San Sebastián, la ciudad donde la orquesta tiene su sede. Además, la combinación de música y palabra resulta muy atractiva por lo que el trabajo es todavía más gratificante». Sobre el programa comentó que «los compositores son de tres orígenes diferentes. La obra de Mahler es una de las más impresionantes que escribió porque refleja de forma muy sentida la gue-



Jun Märkl y Harkaitz Cano, ayer en la sede de la OSE. :: MICHELENA

rra y el sufrimiento. La pieza de Ravel es una de las pavanas más bellas que se han escrito. Por último 'L'Ascension' es como la mayoría de las composiciones de Messiaen es muy religiosa. Habla de la construcción después de la destrucción. Muestra una actitud positiva y esperanzadora. Resulta muy moderna con un lenguaje único e inconfundible».

Los textos de Harkaitz Cano servirán para introducir estas obras interpretadas por la Orquesta de Euskadi, en la primera parte en euskera y en la segunda en caste-

llano. El escritor confesaba ayer que «los músicos siempre me han dado mucha envidia. Incluso siento cierta veneración por la gente que trabaja la música, seguramente porque este arte tiene algo que la palabra y la literatura no tiene. La música influye en nosotros de forma física. Para el que la percibe no hay una operación intelectual a priori. La palabra, desde el principio, es algo racional e interpretativo».

Técnica impresionista

Para 'Despierta en el bosque oscuro despierta', Cano ha huido de una interpretación técnica de la música para optar por una impresionista «porque no soy ningún entendido». En el texto ha querido reflejar el camino de una persona desde lo sombrío de un bosque a la luminosidad, el mismo recorrido que realizan las composiciones que se van a interpretar.

También explicó que «no soy excesivamente rítmico ni musical en mis poemas, pero en este caso sí he puesto más ritmo que en la poesía que acostumbro. Ha sido un experimento, si no me lo hubiesen encargado no lo habría escrito». Sin embargo, una vez trasladado al papel ha surgido una historia rodante que puede seguir creciendo.

LOS CONCIERTOS

Título: 'Despierta en el bosque oscuro, despierta'.

Interpretes: Orquesta Sinfónica de Euskadi (música) y Harkaitz Cano (textos).

Programa: 'Totenfeier' (Mahler), 'Pavane pour une infante défunte' (Ravel) y 'L'Ascension' (Messiaen).

Director: Jun Märkl.

Fechas: Hoy y mañana.

Horario: 20.00 horas.

Lugar: Auditorio del Kursaal.

Precio: 7 euros.